



Bikoteka irakurriz Ulermena hobetzen

Ikasleen txokoa Beasain idaz lehiaketako uzta
Gurasoen txokoa Oporretarako proposamenak



jakintzaikastola

agenda

URTARRILA

HAUR HEZKUNTZA
San Sebastian eguneko danborrada.

LEHEN HEZKUNTZA

2. maila: Bilboko itsas museora bisita.
5. eta 6. maila: Herri Antzokira, pelikula ikustera.

OTSAILA

OROKORRA
Inauterietako desfilea.

HAUR HEZKUNTZA

4-5 urtekoak elurretan jolastera.
4-5 urtekoak piano jotzailearekin saioa.

LEHEN HEZKUNTZA

"Ahoz aho" kanpainarako argazki saioa.
1. maila: Ekaingo kobara bisita. "Lehen gizakiak" gaitzat hartuta, antzerkia eta bazkaria.
1. eta 2. maila: "Igelak eta zapoak" filma ikustera.

DBH

1. maila: Arriarango urtegia eta Legorretako araztegia irteera.

MARTXOA

OROKORRA
"Euskaraz Bizi eguna". Ekintza ugari kalean zehar.
"Eta zer?" antzezlanaren Herri Antzokian. Euskararen normalkuntzarako kide tutakoen arteko hainbat ekintza. Kultur astea.

HAUR HEZKUNTZA

"Txiki Parkera" irteera.
Institutukoak antzerkia egitera.
4 urtekoak lanbide gaiarekin lotuta, herrian zehar irteera.
4 urtekoak Unanue gozotegira bisitaldia.
5 urtekoak Aramara egun pasa.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: Janariaren gaia lantzeko D' Elikatuz interpretazio zentrorra bisitaldia.
1. maila: Osasunaz hitz egiteko mediku baten bisitaldia.
1. maila: Erromatarren garaia aztertzeko *Oiasso* museora bisita.
2. maila: *Kutxa Espaziara* eta *Planetariuma* eta bisita gidatua.
2. maila: Okoroko parkean biodibertsitatearen lanketa.
2. maila: Jubilatuta eta pentsiodunen etxean, Jakintza abesbatzaren emanaldia.
5. maila: Kirodegira, dantzak ikustera.
5. maila: Kidetzea.
5. maila: Zumalakarregi museora bisita.
5. maila: D' elikatuz interpretazio zentrorra bisita.
6. maila: Zuhaitz landaketa.
6. maila: Antzerkia.
6. maila: Mirandaola museora irteera.
6. maila: Suhiltzaileen estaziora bisita.

DBH

1. maila: AGIPADek tabakoaren kontsumoaren inguruko hitzaldia.
1. eta 2. maila: Ikaspihota.
2. maila: Sexu heziketari buruzko hiru eguneko saioak.
2. maila: Zerain eta Segurara irteera.

MANU OLANO
Jakintza ikastolako zuzendaria



Ohiturak aldatuz

Emeki-emeki badoa aurtengo ikasturtea. Gailurra zeharkatu ondoren hasi gara gain behera, eta geroz eta gutxiago gelditzen zaigu amaitzeko. Ikasturtearekin batera urtarok ere badoaz edo joan dira, eta atzean gelditu dira udazkena eta negua. Aurtengoan ezin esango dugu, noski, neguak arrastorik utzi ez duenik. Izotza, elurra eta batez ere hotza bizilagun izan baititugu otsailean.

Halako batean iritsi da naturarentzat udaberria. Egia da gizakiok inguruan dugun ikusmira ez dela batere alai. Nahiko arrazoi badugu kezkatu egoteko, baina agian, udaberriak gogo berriak, ilusio berriak eta zeregin berriak ekarriko dizkigu. Ez

dezagun itxaropena galdu.

Aurtengoan Jakintzako komunitatean modu ezberdinean egin diogu harrera udaberriari. Batzuetan soineko arropak edo jantziak aldatzen ditugu udaberria iristean eta gure kasuan, orain arteko ohitura eta praktika batzuk aldatu ditugu. Aurten, oinez egin diogu harrera udaberriari. Hemendik aurrera guraso, langile eta ikasleak oinez egingo ditugu ikastolako sarrera irteerak. Zergatik? Modurik arruntena eta onena delako. Beste arrazoi bat ere badugu horretarako: gizakiok elkarrengandik ikasten dugu eta norbaitek ikasi nahiko balu, eredia eman behar dugulako.

CAMBIANDO HÁBITOS

Después de haber cruzado el ecuador del curso escolar, nos vamos acercando al final. Hemos dejado atrás el otoño y el invierno. Este año además, no se puede decir que el invierno haya pasado desapercibido. El hielo, y sobre todo, el frío nos han acompañado durante el mes de febrero.

Pero por fin, ha llegado la primavera, aunque el panorama que nos rodea no es del todo agradable, tenemos razones suficientes para estar preocupados. Pero no hay que perder la esperanza, quizá la primavera nos traiga ganas e ilusiones para seguir adelante.

En la ikastola Jakintza, hemos dado la bienvenida a la primavera de una manera distinta. Normalmente con el cambio de temperatura solemos cambiar de vestimenta, y en nuestro caso hemos cambiado de hábitos. Este año hemos recibido la primavera a pie. Ya que de ahora en adelante, trabajadores, alumnos y padres haremos las entradas y salidas de la ikastola andando. ¿Por qué? Porque es la mejor manera, y porque aprendemos unos de los otros. Debemos ser ejemplo para los demás.

¿PREPARADO PARA LAS VACACIONES?

Aunque parezca mentira, el verano está a la vuelta de la esquina, por lo que debemos empezar a preparar nuestras vacaciones. Tenemos ciertas propuestas, esperemos sea de vuestra ayuda.

Aparte de estas ofertas hay más, por lo que si necesitáis más información, no dudéis en consultar en la ikastola.

LA JUBILACIÓN DE KARMELE

Después de veintisiete años de trabajar en nuestra ikastola ha llegado la hora de la jubilación para Karmele. Evidentemente ha sido un recorrido largo y enriquecedor en el cual hemos compartido muchas experiencias y proyectos. Es hora de dar las gracias por todo lo que ha aportado a nuestra ikastola. Ahora ante la nueva etapa de su vida, solo nos queda desearle la mejor suerte del mundo.

Oporretarako prest?

Nahiz eta ez iruditu, uda bertan dugu eta opor horiek antolatzeke garaia iritsi zaigu. Guk zenbait ideia eman nahi dizkizuegu lagungarri izango zaizkizuelakoan.

Esan gabe doa, hemen agertzen diren ekintzetatik kanpo,

gehiago ere badaudela, eta guztien informazio zehatza jaso nahi izango bazenute, ikastolara inguratu eta bertan galdetzea besterik ez duzuela.

Ea gustukoren bat aurkitzen duzuen.

ZER	NON	NORENTZAT	NOIZ
Euskal udaleku irekiak	Ordizia	5-8 urte	Uztaila
Gazte egonaldiak	Arantza (Nafarroa)	12-14 urte 15-18 urte	Uztaila
Kaxkoz kasko udaleku ibiltaria	Lea-Artibai eskualdea	15-16 urte	Uztaila
Surf udalekua	Zarautz	10-12 urte 12-14 urte 15-18 urte	Uztaila
Atzerriko egonaldiak ingelesez	Maghera (Ipar Irlanda) Bray (Irlanda)	13-17 urte	Uztaila
Ingeles udalekuak	Jakintza Ikastola Ondarroa Zarautz Bermeo Sopela	6-12 urte 10-12 urte 12-14 urte 11-13 urte 13-16 urte	Uztaila

Karmeleren erretiroa

Gure Karmelek erretiroa, erretreta hartu digu, Jakintza ikastolatik behintzat. Otsoen mendizulotik Donostiako poxpolinengana salto lehenik, eta handik, berriz, Goierriara, bareen eta azen lurraldera.

Urte asko heziketan, urte asko andereño, maixtra lanetan. Atzera begira jarri eta... zenbat oroitzapen. Gure begien kliskada bakoitzean argazki bat datorkigu; hemen irriak lapurtzen, hor malkoak lehortzen, han jolasean, ilusioak banatzen, triste antzekoak alaitzen, goian dantzan, behean... argazki asko, auskalo zenbat! Baina argazki guztiek marko bera dute, jatoriasunaren markoa.

Jakina, bidaia luzea izan da eta zapore guztietako egunak izango zenituen. Batzuek gozoak, besteak gaziak, mingotsak eta baita garratzak ere. Zapore guztiak dastatuko zenituen eta horrek egiten zaitu hain aberats.

Benoa, Karmele, guk, Jakintza ikastolako guraso, ikasle eta irakasleok, eskerrak ematen dizkizugu zuk eman diguzun



guztiagatik, eta munduko suerterik onena opa dizugu zure ibilbide berrian, amets guztiak bete ditzazula. Jaso ezazu gure besarkadarik goxoena.

Zakukada bat muxu Karmele zuretzat, merezi duzu eta, guzti guztiak marrubizkoak.

Karmele lagun, lehendabiziko, zakukada muxu marrubizko. Guk, oso maite, maite zaitugu, suerterik onena opa dizuegu. Segi aurrera dituzun ametsak betetzera. BIZITZA BIZI, GOZA TOPERA.

Ataunen jaio ta bizitako gazte aroa altxor hiretzako Ondoren aukera ikasteko ta Zurriolan lan egiteko ta guretzako? Hogeita zazpi urte tarteko zinez ederrak gu denontzako

Baina bizitza doa aurrera Karmelek baditu mila aukera Senarrarekin Aralarra edo Xabier "bijilatza" eta gainera Txirinduz Lizarrusti aldera arnas estuka ta alegera

BIKOTEKA IRAKURRIZ, IRAKURKETAN ELKARRI LAGUNDU



Bi ikasturte joan dira dagoeneko Jakintza ikastolan “Bikoteka irakurtzen” egitasmoa martxan jarri zenetik. Ulermen gaitasuna hobetzeko helburuak du proiektuak, eta orain arte ikastolan izandako esperientziaren arabera, helburua bete dela ziurtatzen dute irakasleek.

Haurren irakurketa ulermena hobetzea. Horixe izan zen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko hezkuntza zientzien institutuko *Berdinen arteko ikaskuntzari buruzko azterketa* taldearen helburua. Horretarako, “Bikoteka irakurtzen” izeneko programa bat garatu du taldeak, eta Iberiar penintsulako hainbat ikastetxetan jarri du martxan. Baita Jakintza Ikastolan ere. Duela bi ikasturte abiatu zen programa gurean Berritzegunearen eskutik, eta orain arte lortutako emaitzekin gustura agertu dira guraso, irakasle eta ikasleak. Une honetan, Lehen Hezkuntzako 3. eta 5. mailako ikasleak ari dira egitasmoan parte

hartzen, eta bigarren hiru hilera zehar landu dute, urtero bezala. Beraz, aurtengoz “Bikoteka irakurtzen” proiektuarekin amaitu berri dute ikasleek.

Baina zertan datza “Bikoteka irakurtzen” hezkuntza programa? Berdinen arteko tutoretzan oinarritutako ikaspen prozesua da. Hau da, bi ikasle maila berean eta elkarrekin ikasi arren, bietako batek tutore lanak egin behar ditu. Ikasleen arteko tutoretza horrek, gainera, ikastetxetik kanpo ere jarraipena dauka. Lan egiteko modu honi irakurketa erantsi diote Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ikertzaileek, eta horrela

sortu da “Bikoteka irakurtzen” egitasmo berritzailea.

Hortaz, klase bereko bi ikasle elkarrekin jartzen ditu irakasleak. “Aurretik egin zaien froga baten bidez, bakoitzaren ulermen ahalmena zenbatekoa den jakiten dugu”, Gurutze Fernandez irakaslearen esanetan. Izan ere, berdinen arteko tutoretzan oinarritzen den pedagogia

ULERMENA HOBETZEN ETA ULERMEN GAITASUNA GARATU



irakurri duela sumatzen baldin badu, galditu egiten duela. “Sorbalan kolpetxo bat ematen dio, eta ikasleak badaki zerbait gaizki egin duela. Ordea, ez daki non, beraz, tutoreak eman dakizkiokeen pisten arabera sumatuko du non egin duen akatsa”, Gurutzek azaltzen duenez. Akats hori, irakurtzerako garaian gaizki ahoskatzea, edo antzekoa izan daiteke. Beraz, akatsa zein den identifikatuta, ikaslea saritu egiten du tutoreak, “nahikoa da esatea ongi egin duela”.

Testua irakurrita, ulermen galderei erantzun behar die tutorizatuak. Horretarako, bikoteko irakaslearen laguntza jaso dezake, baina erantzunak bilatzeko soilik. Hortik aurrera ezer ez, bere kabuz egin beharko du. Baina, horren inguruko eztabaidak sortzen dira tarteka bikoteen artean, Marianek azaltzen duenez. “Elkarrekin eztabaidatzea ere garrantzitsua da, elkar konbentzitzen saiatu behar baitute ikasleek. Beraz, kasu horietan argudiatzeko eskatzen diegu ikasle biei”.

Irakurri ohi dituzten testuak denetariakoak dira; hasi eguraldi mapa batetik, edo egunkarian ager daitekeen artikuluren bat. “Ikasleekin irteeraren bat egin behar baldin badugu, bisitatu behar dugun lekuaren inguruko testuak eman izan dizkiegu, esaterako”, dio Gurutzek. Era horretan, ikuspegi zabalagoarekin joaten dira ikasleak bisitaldia egitera. Edozein modutan, Berritzegunearen bidez martxan jarritako programa denez,

programa batean, oso garrantzitsua da antzeko maila duten ikasleak bateratzea. Era horretan, ikasleek gehiago ikasten baitute, “elkarren artean sortzen den inplikazioaren ondorioz”, Marian Iturrioz irakasleak dioenez.

Tutorea, eta tutorizatuak

Baina berdinen arteko ikasketa prozesuak fruituak eman ditzan, bikoteko kide bakoitzak funtzio ezberdinak bete behar ditu: tutore eta tutorizatu paperak, hain zuzen ere. Ikastolan hamabostero aldatzen dituzte zeregin horiek. Horrela, biek egiten dute irakasle eta ikasle lana.

Astean bitan, irakasleak irakurtzeko testu bat ematen dio kasuan kasuko tutoreari. “Irakurgaia etxean prestatzen du tutoreak. Galderak

eta ulertzen ez dituen hitz eta kontzeptuak argitzen ditu Internet edo hiztegi bidez”, Gurutzek azaltzen duenez. Beraz, testua etxean prestatu ondoren lantzen dute klasean.

Ordu erdiko saioa egiten du tutoreak bere ikasle edo tutorizatuarekin.

Lehenengo, irakurri aurretik, testuari buruzko aurreiritzizko galderak erantzun behar ditu ikasleak. “Testua zeri buruzkoa den, eta gai horren inguruan ikasleak kasu bakoitzean duen ezagutza lantzen dute”, Marianen arabera. Ondoren, tutoreak testua ozen irakurtzen du, eta gero biek elkarrekin. Kasu horretan, GPS bidez egiten dute lan. Hau da, gelditu, pista eman, eta saritu. Horrek zer esan nahi du?

Tutoreak bere ikasleak zerbait gaizki



Hurrek ere sumatzen dute aurrerapausu hori. Bikotekako irakurketa egiten dutenean testuan arreta gehiago jartzen dutela onartzen dute, eta klase horietan ere bestelakoetan baino kontzentratuago egoten direla diote. Gainera, **erantzukizunak hartzeko balio die ikasleei. Izan ere, tutore izatea dagokion ikasleak aldeztatik etxean testua landu egin behar du, bestela "bikotekideari ere eragiten dio, ez tutoreari bakarrik", onartzen dute ikasleek.** Horregatik, ardura hori duten heinean, ikasleek ia beti prestatzen dituzte testuak, Iturrioz eta Fernandezek diotenez.

Etxearen parte hartzea

Hortaz, programak arrakasta izateko, etxean ere lan egin behar dute ikasleek, eta ildo hori lantzen hasi dira aurten. Oraingoz emaitza oso onak lortu dira. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko kideek egin duten ikerketaren arabera, lanketak etxean jarraipena duenean, emaitza hobekiak lortzen dira. Beraz, ikastolako ikasleek, aste osoan zehar, asteburua barne lantzen dute bikotekako irakurketa. Kasu horretan, guraso edo familiako kideren batekin aritzen dira. "Hurrek ikastolan egiten duten lanketa etxean ere egitean, gurasoak proiektuaren parte direla sentitzen dute", dio Jaione Gaztañaga gurasoak. Eta hori positiboa dela uste du Maria Jesus Baldak. Arrate Leunda gurasoa bat dator, eta irakurzaletasuna sustatzen duela gaineratzen du, **"gogoeta egiteko balio digu"**. Hala ere, batzuetan lanketa dela onartzen du Arantza Arrieta gurasoak, baina ikastolan egiten dutenaren osagarria dela uste du, edozein modutan.

Etxean bikotekako irakurketaren lanketa egiterakoan, gainera, sakonago egiten dute lan hurrek. Izan ere, ikastolako ordu erdian askotan lanketa amaitu gabe utzi behar izaten dute. Etxean, ordea, denbora gehiago dutenez, testua amaitu arte aritzen dira. "Etxean nahiago dut, denbora gehiago daukadalako", dio ikasleetako batek.

Etxe eta ikastolako lanketarekin, bietan emaitza hobekiak lortzen ari dira hurrek, irakasleen arabera. Proiektua hasi aurretik egindako frogak, eta proiektua gauzatu ondorengo alderatuz, ulermen ahalmenean aurrerapausu esanguratsuak nabaritu ditugu. Horregatik, programa emankorra dela uste du Gurutzek. "Programak bere helburuak bete ditu".

irakurgai gehienak eurek emandakoak izan ohi dira. Edozein modutan, Jakintza ikastolako irakasleek aukeratzen dituzten testuak ere programaren barruan xertatzen dituzte.

Orain arte ikastolan izandako esperientziaren arabera, emaitzak onak izan direla aitortzen dute irakasleek. **"Galderak**

prestatzen dituztenean ulermena asko hobetzen da, eta klasean bertan ere programan erabat sartuta egoten dira". Horretaz gain, hurren erantzunak osatuagoak eta landuagoak direla sumatzen dute irakasleek, "hasieran bai eta ez esanez erantzuten zituzten galderak. Orain erantzunak landuagoak dira".



La lectura, herramienta para el apoyo mutuo, y el desarrollo de la comprensión

Mejorar la comprensión lectora del alumnado. Ese fue el objetivo marcado por el equipo de investigación del departamento de Ciencias de la educación de la Universidad Autónoma de Barcelona sobre el aprendizaje entre iguales. Para ello, el departamento ha desarrollado el programa "leyendo entre parejas", y desde hace dos cursos Jakintza Ikastola también es participante de dicho programa. Profesores, padres y alumnos coinciden en los buenos resultados obtenidos, y se muestran realmente satisfechos.

Pero, ¿en qué se basa el proyecto? En el aprendizaje entre iguales. Es decir, dos alumnos del mismo curso aprenden ayudándose mutuamente, pero a uno de ellos se le asigna el cargo de tutor, y deberá ayudar a su compañera.

Tutor y tutorizado

El proceso de aprendizaje, se basa en dos figuras: el tutor y el tutorizado. Estos dos roles son indispensables para el correcto funcionamiento del aprendizaje. En la ikastola, los alumnos se turnan los roles cada dos semanas.

Coincidiendo con los cambios de roles, el profesor le asigna un texto al tutor de cada pareja. "El tutor prepara el texto en casa. Plantea preguntas, y consulta en Internet o en diccionarios todo aquello que no ha comprendido", tal y como explica la profesora Gurutze Fernandez.

Con el texto preparado, el tutor y el tutorizado lo estudian en clase. Cada lectura suele tener una duración de 30 minutos. Primero, contestan preguntas previas a la lectura. "Tienen que adivinar sobre lo que trata el texto, y el tutor le pregunta a su alumno qué sabe sobre ese tema", dice Marian. Una vez superada la primera fase, el tutor lee el texto en voz alta, y luego los dos a la vez. Para eso, utilizan el sistema PPP. Es decir, parar, dar pistas, y premiar. Y eso, ¿qué significa? Si el tutor cree que su alumno ha leído alguna parte del texto de manera errónea, le obliga a detenerse. "Le da un golpecito en el hombro, y el alumno se da cuenta que algo ha hecho mal, aunque no sepa dónde ha cometido el error. Entonces, por las pistas que le da el tutor, tiene que averiguar cuál es el error", explica Gurutze. Por ejemplo, el error puede ser una mala pronunciación. Una vez localizado el fallo, el tutor premia al alumno, "basta con decirle que lo ha hecho de manera correcta". Después de la lectura, el tutorizado tiene que responder a las preguntas que ha preparado el tutor. El alumno puede consultar con su profesor en caso de duda, pero sólo recibirá pistas, nada más. En esta fase, se suelen crear pequeños conflictos entre las parejas. "Discuten entre ellos, y tienen que tratar de persuadir unos a los otros, argumentando sus razones. Eso es muy importante", recalca Marian.

Hasta ahora, Marian y Gurutze están satisfechas con los resultados obtenidos. "Por ejemplo, la comprensión del tutor aumenta cuando prepara las preguntas". Pero, más aún, las respuestas de los niños suelen ser más complejas y ricas, "al principio sólo respondían con un sí o un no, y ahora las respuestas están más desarrolladas".

La mejora también se nota entre los alumnos. Cuando están trabajando la lectura en pareja, suelen prestar más atención, y a su vez, les enseña a ser responsables, ya que, como explica un alumno, "cuando somos tutores y no preparamos los textos, no nos afecta sólo a nosotros, también a nuestra pareja".

Participación de los padres

El éxito del programa también consiste en la participación de los padres. Los fines de semana los niños realizan la lectura con sus padres o familiares. De esa manera, los resultados son mejores, según los investigadores de la Universidad Autónoma de Barcelona. Y eso repercute en la evolución de los alumnos, ya que, comparando las primeras encuestas realizadas a inicio del curso, y las últimas, es palpable la mejora en la comprensión lectora. Por eso, "el programa ha cumplido sus expectativas", afirma Gurutze.

BEASAINGO IDAZ LEHIAKETAKO UZTA

Elkarren ondoan bizi diren herrien arteko ika-miken mitoa baztertu eta, aurtengoan ere, beasaindarrek antolatutako lehiaketan hartu dugu parte Jakintzan. Egindako lana ez da makala izan eta partaidetza txalotzekoa izan da, ikasle eta irakasleen aldetik. Horrekin gustura egonagatik ere, azken puxtarria sariek jarri dute: 9 ikasle izan ditugu oholtza gainean sariren bat jasotzen. Horietako hiru, lehenengo sariak izan dira.

Larri ikusi dugu Saioa txertoa jarri behar duen egunean; Ane, berriz, festa gogoan etorri zaigu eta ama berera ekarri nahian ibili da.

Gaur daukagu txertoa/goizeko hamarretan/oso urduri nago/larria benetan/mareatzen ari naiz/laurden gutxietan/eta lurrera noa/hamarrek puntutan SAIOA ARREGI

Ama joan nahi nuke/gazteen festara/nire lagun guztiak/doaz ta bertara/bertan egingo dugu/nahikoa algarra/Axolarik ez dio/berandutzen bada ANE IRRIBARRIA

Xabierrek atzera egin du garaian eta 1926ko euri zaparradapean kokatu gaitu. Maider, berriz, gaurkoan dago eta ez du une honetako arazo larriena ahaztu.

...Egun iluna zen, egun tristea, egun horretan ez nintzen esnatu ohiko moduan. Lehenengo eguzki izpiak ez ziren nire leihotik sartu, eta nire aurpegi leuna ukitu ni esnatzeko. Egun horretan izugarriko euri zaparrada botatzen zuen, 1926ko martxoaren 11 zen, bai, hamarkada hartako egunik euritsuena... XABIER MURIEL

Arazo asko daude/momentu hauetan/Batek kezka jarri du/azken urteetan/Galdera konplexu bat/dugu ahoetan/zer egin dezakegu/guk krisi honetan? MAIDER MADRAZO

Aloñak koaderno zuri bat aurkitu, eta idazten hasi da.

...Tximista baino bizkorrago aldatu, eta autoa hartu du lanerantz joateko. 8:00ak puntuan iritsi da, eta bere gelara sartu ostean, koademotxo bat ikusi du. Ireki, eta orri guztiak zuri-zuriak zeuden. Arkatza hartu, eta ikertzen ari den gertaerak bertan idaztea bururatu zaio... ALOÑA ALDASORO

Iratik maitasuna du hizpide eta musikara hurbiltzen gaitu hura esplikatu nahian.

...Maitasuna abesti bat bezalakoa da. Egia ote?



Schuberten eta Beethovenen melodiek ere izaten dituzte errepikapenak... IRATI URDANGARIN

Irenek badaki zertan datzan bizitzen jarraitzeko esperantza bakarra.

...Libre izatea da bizitzen jarraitzeko duzun esperantza bakarra. Ingurukoek zutaz duten iritziak soilik gizartearen esklabu egiten zaitu. Eta zure lanak, onartu nahi ala ez, esklabotasun horren kontra errebeldatu diren pertsona ausartak tratatzean datza. Egiten dutena lekuz kanpo egon arren, nahiko ausardia erakusten dute etsi gabe... IRENE

Eta Liernik Beasainen bildu ginenon jakinmina aipatzen digu, familiako kideak, irakasle eta lagunak, denak jakin-minaren gosez.

...euren familiako kideak jakin-minaren gosez utziz... LIERNI

Eta Liernik asmatutako Aimè-ek berriro orri zuriak dakarzkigu gogora eta horiek eragiten dien beldurra.

...Izan ere, Aimèek beti esan izan du beldur gehiago diola orrialde zuri bati gerra odoltsuari berari baino. Eta Castillo Suarez delako batek esandakoari men egin nahi izan dio, eta Samulen eskumuturrak egingo ez zituen jardunak bere esku utzi. " Idatzi,/zuk idatziko ez duzuna/nik ezin dudalako idatzi." LIERNI

Garai honetarako gure beldurrak uxatu ditugu, eta esperantzaz betetako etorkizuna iragar dezakegu krisiari aurre egiteko txerto bat baino gehiago behar bada ere, parranda baten ondoren, egun tristea datorrela badirudi ere. Orri zuriak, beldurrak alboratu eta, esperantzaren ikur izango dira eta maitasunaz eta libre izateaz idatziko dugu haietan, gure ingurukoekin jakinmina asez.

Eta idatz ezazue, gazteok! Inork idatzi duena ezin izango baitugu sekula ordezkatu, bakarra baita, apartekoa...

Un año más, la ikastola Jakintza ha participado en el concurso de literatura de Beasain. El trabajo realizado ha sido excelente por parte de los alumnos, y por lo tanto sólo nos queda aplaudir su participación. Los alumnos han recibido 9 premios, de los cuales tres han sido el primer premio. Saioa Arregi, Ane Iribarria, Xabier Muriel, Maider Madrazo, Aloña Aldasoro, Irati Urdangarin, Lierni e Irene han sido los galardonados.

GORA EUSKAL INAUTERIAK!

Egun Euskal Herriak dituen zenbait ohitura jentilen garaioak edota kristautasun garaioak dira.

Kristo aurreko euskaldunak, Jentilak zirenak, mendialdean bizi ziren artzain eta ehiztariak ziren, eta horren lekuko dugu euskal kulturaren ardatz nagusia.

Urteen poderioz haien hizkuntzak eta kulturak atzerriatik jasotako aldaketak izan ditu. Hala eta guztiz ere, kulturak, ohiturak eta folkloreak bertakoa izaten jarraitzen dute. Horren guztiaren lekuko dira euskal inauteriak, gurasoek seme-

alabei kontatutako ohiturak gaur egun arte iritsi direnak.

Euskal inauterien jaiak erromatarren garaian du jatorria. Garizuma abiatzen den aurreko astean hasi, eta Garizumako hausterre-egunaren bezpera arte luzatzen dira inauteriak.

Hamalau urte dira Jakintza ikastolakook EUSKAL INAUTERIAK ospatzen ari garela, eta aurten ere, ilusio betez, musikaz eta dantzaz bete ditugu Ordiziako kaleak, gogotik aldarrikatuz "Gora Euskal Inauteriak!"



LEHEN GIZAKI EGUN BATEZ

Lehenengo mailako Txanela proiektuari jarraituz, "Denboraren makinan" bidaiatzen jarraitu dute 1. mailako ikasleek, eta *lehen gizakien* garaira iritsi dira.

Unitatea lantzen aritu diren bitartean, denboran zehar gizakiak bere bizimoduan izan dituen bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen joan dira ikasleak.

Unitatea amaitzeko, ikasleek

egindako arropa tresneria, eta apaingarriak soinean jarri, eta guztiok elkarrekin bazkaria egin dugu, LH 2. mailako ikasleak gonbidatuz. Oreka TX txalapartarien taldeko *Keinuka ilargiari* abestia entzunaz ehiza saio bat irudikatu dute antzerki-emanaldi batean.

Nola pasatu duten gure ikasleek "Lehen Gizaki" izanik egun batez!



TXIKITATIK BIRZIKLATZEN



3 urte dituztenetik hasten gara haurrei nola birziklatzen den irakasten. Kurtsoan zehar pilatzen zaizkugun orri eta kartoak gelan daukagun ontzi urdinera botatzen ditugu. Eta horretarako hautatutako egunean, berokiak jantzi eta eguraldi ona aprobetxatuz kalera irteten gara guztion artean gelan pilatu zaiguna botatzera. Bide batez, ondoan dauden edukiontzietara ere zer bota behar den ikusten dugu.

Han transcurrido catorce años desde que en la ikastola Jakintza estamos celebrando los carnavales vascos. Este año tampoco hemos faltado a la cita, y hemos llenado de colorido, danza y música las calles de Ordizia.

Siguiendo el proyecto Txanela, los alumnos del 1º curso de Primaria han viajado en la máquina del tiempo, y han llegado hasta la prehistoria. Para acabar la unidad didáctica, celebraron una comida con los vestidos y atuendos de la época.

A los alumnos de 3 años se les está enseñando cómo deben reciclar. El papel y el cartón lo recogen en un recipiente azul que tienen en clase. Después depositan los residuos que han acumulado en los contenedores.

ZUHAITZAK LANDATZEN

Zer da gurbitza? Eta ezpela? Eta gorostia? Ez badakizu, edota ikusi nahi badituzu, jo gure 6.mailako neska-mutilengana eta gustura asko emango dizute informazio guztia. Izan ere, ez dira egun asko gure ikasle hauek zuhaixka horiek aldatzen aritu zirela herrian zehar. Serio arraio aritu ere! Hirurogeiren bat aldatu zituzten. Horretarako, jakina, udal lorezainen laguntza paregabea jaso zuten.

Gurbitza, ezpela eta gorostia hemengo zuhaixkak dira. Gorostia eta ezpela, gainera, babestuta daude, galtzeko arriskuan baitaude.

Lanean fin aritu ziren gure ikasleak, eta zalantzarik ez daukagu beraiekin batera haziko diren zuhaixka horiek ondo baino hobeto

zainduko dituztela. Ez hori bakarrik, inguruarekiko ere ardura gehiagoz eta errespetuz jokatuko dutela.

Eguerdian aritu ziren lanean eta bazkaltzeko gogo handiz itzuli ziren etxera.



ELKARRI PIROPOKA

Urtero, Urtxintxa eskolak, gazteen aisialdi esparruan lan egiten duen taldeak, piropo lehiaketa antolatzen du. Aurtengo ikasturtean DBH 3 eta DBH 4ko ikasleek gogoz hartu dute parte. Lau lehenengo sarietatik hiru lortu dituzte. Hona hemen irabazleak:

Pikanteena: irabazlea, Alba Torres. Eta saria, 4 sarrera Txuri Urdinera joateko.

Originalena: irabazlea, Elixabet Moreno. Eta saria, 4 sarrera Urdaibain Piraguan ibiltzeko.

Goxoena : irabazlea, Xabier Aranburu. Eta saria, 4 sarrera Ekain kobatara joateko.

Elisabeth Moyuak, Jon Rodriguezek eta Eider Garmendiak, berriz, liburu, CD, eta mahai joko sorta jaso dute

KOMIKI LEHIAKETAN SARIA

Ordiziako Udalak antolatzen duen Komiki lehiaketan A mailako 1. saria DBH 4ko Irati Urdangarinek lortu du "Partidaren etenaldia" lanarekin. ZORIONAK!!



Los alumnos de 6º de Primaria han plantado en torno a 60 árboles por todo Ordizia, con la ayuda de los jardineros municipales. Han plantado árboles como el boj o el acebo, que están en peligro de extinción. No tenemos duda de que estas plantas crecerán junto con los alumnos.

La escuela Urtxintxa organiza cada año un concurso de piropos. Este año, los alumnos de la ikastola Jakintza han conseguido tres premios. Alba Torres, Elixabet Moreno y Xabier Aranburu, alumnos de 3º y 4º de ESO, son los tres galardonados.

Irati Urdangarin, alumna de 4º de ESO ha logrado el primer premio en el concurso de cómic que organiza el Ayuntamiento de Ordizia.

irteerak

Eskia gerturatzen

DBH 3ko ikasleak etorri berriak dira Somporten eskiatzetik. Eguraldi ona eta eskiatzen ikasteko giro ezin hobea topatu dute bertan. Aukera bertan izanda, ongi asko aprobetxatu dute gainera. Josu, aurtengo Euskadiko txapelduna, eta Javier, urteetan eskiaren munduan ibilitakoa, izan dira gure ikasleen irakasle. Gauzak horrela, etekin ederra atera diote. Hiru egunez luzatu den irteera horretan ederki ikasi dute eskiatzen, eta batez ere, ezin hobeto pasa dute. Lehen aldia da modu horretako ikasbidaiak egiten gurela eta esperientziarekin oso gustura gaude.

Ikasleak, dantzari


Dantza eta koreografia bultzatzen urte asko daramatza Jakintza Ikastolak bere gorputz hezkuntzako sailoetan. Aurreko urtean bultzada handia eman zitzaion helburu honi eta Eider Epelde irakasleak jarri zituen dantzan gure ikasleak. Emaitza ezin hobea izan zen, eta proiektuaren amaiera modura eskaini zuten jaialdia guztiz arrakastatsua gertatu zen. Aurten ere bide beretik goaz, eta dagoeneko hasiak dira gure ikasleak koreografia desberdinak prestatzen. Jaialdia oraingo honetan Kultur Astearen barruan eskaini zen martxoaren 28an, arratsaldeko 3etan. DBH eta Batxilergoko ikasleek eskainiko zuten dantza eta koreografia emankizun hori.

Arriarango urtegia eta Legorretako araztegia

DBH 1eko ikasleek, martxoaren 13an, Arriarango urtegia eta Legorretako araztegia ezagutzera joan ziren. Arriarango urtegiaren ura nola biltzen den, eta edangarria bihurtzeko zer prozesu edo tratamendu egiten duten azaldu zitzaion. Bestalde, ikasleek ere ikusi ahal izan zuten Goierriko herrietatik Legorretako araztegiara iristen diren ur zikinak nola garbitzen dituzten ibaira isuri aurretik. Era horretan, uraren zikloan gizakiok dugun esku hartzearen berri izan zuten ikasleek. Alde batetik, ura metatzeko sistema bertatik bertara ezagutu zuten, eta bestetik, behin ur hori erabilia nola garbitzen den ikusi zuten.



1984an jaiotakoak Lurdes andereinoarekin inauteriak ospatzen



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g

tfno. 943 16 05 40

faxa. 943 16 07 90

20240 ORDIZIA

ordizia@ikastola.net



ikastolenelkartea